

PRESTAKUNTZA-ATALAREN IDENTIFIKAZIO-DATUAK

PRESTAKUNTZA-ATALA	JOLAS-, LAN- ETA KIROL-JARDUERETAN ETA ERAKUSKETETAN ETA/EDO LEHIAKETETAN PARTE HARTZEN DUEN ZALDI-AZIENDAREN KONTROLA	Iraupena	40
		Especifikoa	
Kodea	UF0378		
Lanbide-arloa	NEKAZARITZA		
Lanbide-eremua	Abeltzaintza		
Profesionaltasun-ziurtagiria	Zaldi-hazkuntza	Maila	3
Prestakuntza-modulua	Moxalen oinarrizko heziketa eta jolas-, lan- eta kirol-helburuetarako, eta erakusketetan eta/edo lehiaketetan aurkezteko zaldien maneia gainbegiratzea.	Iraupena	180
Modulua osatzen duten gainerako prestakuntza-atalak	Moxalen oinarrizko heziketa-prozesua zaldi-aziendan.	Iraupena	90
	Zaldi-aziendaren elikadura eta maneio orokorra oinarrizko heziketan eta zaldi-jardueretan parte hartzen dutenean.		50

A atala: **GAITASUN-ERREFERENTEA**

Prestakuntza-atal hau bat dator UC535_3 JOLAS-, LAN- ETA KIROL-HELBURUETARAKO, ETA ERAKUSKETETAN ETA/EDO LEHIAKETETAN AURKEZTEKO ZALDIEN OINARRIZKO HEZIKETA-LANAK ETA MANEIOA GAINBEGIRATZEA gaitasun-ataleko LB3 eta LB4 lanbide-burutzapenekin

B atala: **AHALMENEN ETA EDUKIEN ZEHAZTAPENA**

Ahalmenak eta ebaluazio-irizpideak

A1: Jolas-, lan- eta kirol-jardueretara bideratzen diren zaldiekin egiten diren jarduerak antolatzea eta kontrolatzea, behar bezala garatzen direla ziurtatzeko.

EI1.1 Jolas-, lan- eta kirol-jardueretan parte hartzen duten zaldien maneio-, kokapen- eta garraio-jarribide orokorrak zehaztea.

EI1.2 Animalientzako lan-plan espezifiko bat egitea, parte hartzen duten jarduera edo jarduerak kontuan hartuta.

EI1.3 Animalia bakoitzarentzat aurreikusitako lan-plana balioestea, teknikak eta baldintzak eta lan-denborak aurreikusitako helburuak lortzeko egokiak ote diren atzemanaz.

EI1.4 Jolas-, lan- eta kirol-jardueretan animalien ezohiko portaerako egoerak identifikatzea, horiek zuzentzeko neurri espezifikoek aplikazioa balioetsiz, beharrezkoa izanez gero.

EI1.5 Animalien trebakuntza-maila eta egoera fisikoa eta mentala horiekin egiten den jarduerarako egokiak diren atzematea, jarduera jakin bat garatzeko animalia batzuk baztertzeko aukera balioetsiz.

EI1.6 Zaldiekin jolas-, lan- eta kirol-jarduerak egiteko eta horiek prestatzeko erabiltzen diren instalazioen, materialen eta ekipamenduen erabilera-moduak eta ezaugarriak definitzea.

EI1.7 Zaldiek jolas-, lan- eta kirol-jardueretan parte hartzeko eta horien prestaketarako, nekazaritzako eta abeltzaintzako industriaren sektorerako ingurumen-jardunbide egokien eskuliburuan, laneko arriskuak prebenitzeko araudian eta animalia-ongizatearekin lotutako jardun-irizpideetan jasotako espezifikazioak identifikatzea.

A2: Erakusketetan eta/edo lehiaketetan parte hartzeko eta animalien prestaketarako zaldi-aziendarekin egin behar diren jardunak planifikatzea eta gainbegiratzea.

EI2.1 Animalien lan- eta egokitzapen-plan espezifiko bat egitea, parte hartuko duten ekitaldietan eta/edo lehiaketetan egin beharreko jardueraren arabera, eta horiek arautzen dituzten arauen eta erregelamenduen arabera.

EI2.2 Zaldien trebakuntza-, entrenamendu- eta egokitzapen-lanak azaltzea, ekitaldietan eta lehiaketetan parte hartzeko eta/edo erakusteko.

EI2.3 Animalia horiek ekitaldi eta lehiaketa desberdinetan parte hartzean eta/edo erakustean eta horien trebakuntzan erabiltzen diren instalazioen, materialen eta ekipamenduen erabilera-moduak eta ezaugarriak definitzea.

EI2.4 Animalien trebakuntza-maila eta egoera fisikoa eta mentala ekitaldi edo lehiaketa jakin batean parte hartzeko eta/edo erakusteko egokiak diren atzematea, parte hartzeko animalia batzuk baztertzeko aukera balioetsiz.

EI2.5 Animalien ezohiko portaerako egoerak identifikatzea trebakuntzan eta ekitaldi eta lehiaketa desberdinetan parte hartzean eta/edo erakustean, horiek zuzentzeko neurri espezifikoek aplikazioa balioetsiz beharrezkoa izanez gero.

EI2.6 Erakusketetan eta/edo lehiaketetan parte hartzen duten zaldien kokapen- eta garraio-jarribide orokorrak definitzea.

EI2.7 Zaldiek erakusketetan eta/edo lehiaketetan parte hartzeko eta horien prestaketarako, nekazaritzako eta abeltzaintzako industriaren sektorerako ingurumen-jardunbide egokien eskuliburuan, laneko arriskuak prebenitzeko araudian eta animalia-ongizatearekin lotutako jardun-irizpideetan jasotako espezifikazioak identifikatzea.

Edukiak

1. Zaldi-aziendaren erabilera jolas-, lan- eta kirol-jardueretarako.

- Zaldi-aziendak parte hartzen duen jolas-, lan- eta kirol-jarduera nagusiak: berezitasunak, araudiak eta partaidetza-arauak.
- Zaldi-aziendak jolas-, lan- eta kirol-jardueretan parte hartzea baldintzatzen duten jarraibideak: arraza, adina, trebakuntza-maila, osasun eta egoera fisiko egokiak.
- Zaldi-aziendak jolas-, lan- eta kirol-jardueretan parte hartzeko prestatzeko teknikak: trebakuntzako, egokitzapeneko eta mantentze fisikoko lanak.
- Jolas-, lan- eta kirol-jardueretan parte hartzen duen zaldi-aziendaren maneiurorokorra: animalien maneiur- eta kokapen-protokoloa ustiategiaren barruan.
- Jolas-, lan- eta kirol-jardueretan parte hartzen duen zaldi-aziendarekin erabilitako instalazioak, materialak eta ekipamenduak: erabilera-moduak eta egokitzapena.
- Zaldi-aziendaren portaera normala jolas-, lan- eta kirol-jardueretan parte hartzen duenean.
- Zaldi-aziendaren ezohiko portaerako kasuak jolas-, lan- eta kirol-jardueretan parte hartzen duenean: izan daitezkeen zuzenketak.

2. Zaldi-aziendaren partaidetza erakusketetan eta lehiaketetan.

- Zaldi-aziendak parte hartzen duen erakusketa- eta lehiaketa-motak: berezitasunak, araudiak eta partaidetza-arauak.
- Erakusketetan eta lehiaketetan zaldi-aziendaren partaidetza baldintzatzen duten jarraibideak: arraza, adin, trebakuntza-maila, egokitzapen, osasun eta egoera fisiko egokiak.
- Zaldi-aziendaren prestaketa-teknikak erakusketetan eta lehiaketetan parte hartzeko: hautaketako, trebakuntzako, egokitzapeneko eta mantentze fisikoko lanak.
- Ekitaldietan eta/edo lehiaketetan erakusteko eta/edo parte hartzeko prestatzen den zaldi-aziendaren maneiurorokorra: animalien maneiur- eta kokapen-protokoloa ustiategiaren barruan.
- Erakusketetan eta lehiaketetan zaldi-aziendaren partaidetzarako eta prestaketarako erabiltzen diren instalazioak, materialak eta ekipamenduak: erabilera-moduak eta egokitzapena.
- Zaldi-aziendaren portaera naturala erakusketetan eta lehiaketetan parte hartzen duenean.
- Zaldi-aziendaren ezohiko portaerako kasuak erakusketetan eta lehiaketetan parte hartzen duenean: izan daitezkeen zuzenketak.

3. Zaldi-aziendaren garraioa jolas-, lan- eta kirol-jardueretan eta erakusketetan eta lehiaketetan parte hartzeko.

- Bidaia-motaren arabera garraio-baliabide eta -ekipamendu egokiak.
- Bidaian zehar animaliak babesteko ekipamenduak.
- Animalientzako eta garraiatzen dituzten langileentzako ezinbesteko prebentzio- eta segurtasun-neurriak.
- Zaldi-aziendaren garraiorako derrigorrezko dokumentazioa eta osasun-jardunak.

4. Jolas-, lan- eta kirol-jardueretan eta erakusketetan eta lehiaketetan parte hartzen duen zaldi-aziendarekin lotutako araudi erregulatuak.

- Ingurumen-babesa
- Lan-arriskuen prebentzioa
- Animalien ongizatea.

C atala: ESKAKIZUNAK ETA BALDINTZAK

Baldintza hauetakoren bat bete behar da:

- Batxilergoko titulua izatea.
- 3. mailako profesionaltasun-ziurtagiriren bat edukitzea.
- Lanbide-arlo eta -eremu bereko 2. mailako profesionaltasun-ziurtagiriren bat edukitzea.
- Goi-mailako heziketa-zikloetan sartzeko baldintza akademikoak betetzea edo goi-mailako zikloetara sartzeko dagozkion probak gainditu izana.
- 25 urtetik gorakoentzako eta/edo 45 urtetik gorakoentzako unibertsitatera sartzeko proba gainditu izana.
- Prestakuntzari behar adinako probetxua ateratzeko behar diren prestakuntza- edo lanbide-ezagupenak izatea, ezartzen den araudiaren arabera.

Prestatzaileen, instalazioen eta ekipamenduen arloko eskakizunei dagokienez, profesionaltasun-ziurtagiri honetarako ezarritako eskakizunak hartuko dira kontuan: Zaldi-hazkuntza